

# FUNTSEZKO SOZIETATEAK

Gure proiektua aurrera eraman ahal izateko, hainbat elkarkidetasun sortzea komeni da. Alde batetik, materialak hornituko dizkiguten hainbat hornitzaile finko beharko ditugu, hala nola Industrias Vitoria Zip, Cotonos Aguirrezabal, La Costura, El Taller de Costura de Mungia eta Irantzutzu.

Gure hornitzaileak finko izanda, baliabideak eskuratzeaz aparte, arriskuak murriztuko genituzke, izan ere, hornitzaile finko horiek gure enpresaren nahiak eta beharrak ezagutuko lituzkete eta horrek guk produktu zehatzago bat eskuratzea ahalbidetuko luke. Ondorioz, gure negozio-eredua optimizatzeko aukera handia eskainiko luke. Horretaz aparte, aipatzekoa da, batzuetan hornitzaileek beherapenak egiten dietela bezero finkoei.

Bestalde, arriskuak murrizteko asmoz, arropa salduko duten bazkideak beharko ditugu, kasurako Lookiero, Zara, Pull and Bear eta Berskha. Dendekin sortu nahi ditugun elkarkidetasun hauek onuragarriak izango lirateke bai gure enpresarentzat baita gure bazkideentzat ere, hortaz, espero dugu aliantza hauek ere finkoak izatea.

Horrez gain, enpresako web-gunea diseinatzaileak eta bezeroak harremantzeko gakoa dela kontuan izanda, funtsezkoa da, web-orria kudeatuko duten aditu talde bat kontratatzea. Azkenik, garraio enpresa batekin ere elkarkidetasuna sortzea garrantzizkoa da, hala nola Primafrio-rekin. Horrela, gure enpresa-eredua optimizatuko genuke.